

**ZUMAIAKO UDALAREN 2025EKO AURREKONTUAREN ONARPENA****TXOSTENA  
AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK  
ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA****ARAUDI APLIKAGARRIA:**

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- 2024ko uztailaren 16ko Ministro Kontseiluen akordioa: "2025-2027 ekitaldirako aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak, eta 2025erako Estatuaren aurrekontuaren gastu finantzarioaren muga zehazten dituenak".

**AZTERTUTAKO TRAMITEA:** Zumaiaiko Udalaren 2025eko aurrekontuaren onarpena

**FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)****1- ENTITATE ZERRENDA:**

ZUMAIAKO UDALA

**2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA****Aurrekontuen egonkortasuna**

Zumaiaiko Udalaren 2025eko aurrekontuaren onarpen espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek 54.713,64 euroko superabita du.

Sarrerak (1-7)	19.434.168,45
Gastuak (1-7)	19.779.454,81
	- 345.286,36
SEC doikuntza DGFL	400.000,00
	<b>54.713,64</b>

SEC doikuntzari dagokion kopurua, 2023 urtean Zumaiaiko Udalak komentuko 2. Fasea egiteko jasotako PRTS dirulaguntzari dagokio.

Hori horrela izanik, Zumaiaiko Udaleko aurrekontu bateratuaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek betetzen du aurrekontu egonkortasunaren 2025eko helburua.

**Finantzen iraunkortasuna**

2025eko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 2025ean likidatutako sarrera arrunten % 4,08 izango dela aurreikusten da. Jarraibidearen arabera, kalkulua egiteko 2025eko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, ekitaldian exekutatutako abalak barne, eta hori gehituko zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta kenduko zaizkio

**ZUMAIKO UDALAREN 2025EKO AURREKONTUAREN ONARPENA**

ekitaldian itzulitako abalak. Magnitude horretan ez dira kontuan hartuko Udalak Finantzatzeke Foru Fondoarengatik (UFFF) itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2024ko uztailaren 16ko Ministro Kontseiluen akordioa: "2025-2027 ekitaldirako aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak, eta 2025erako Estatuaren aurrekontuaren gastu finantzarioaren muga zehazten dituen" erabakiko helburua betetzen du."

Zor bizia: %4,08.

Sarrera arruntak: 17.730.074,91

Zorra mankomunitatearekin, Urtetako zabortejiaren kudeaketa: 531.513,41 (27.974,39\*19).

IDAE mailegua: 191.416,77

2025/12/31rako aurreikusitako zorra: 722.930,18

**Gastuaren araua**

Kalkuluak egiteko, 2024ko uztailaren 16ko Ministro Kontseiluen akordioa: "2025-2027 ekitaldirako aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak, eta 2025erako Estatuaren aurrekontuaren gastu finantzarioaren muga zehazten dituen" izan da kontuan. Akordio horretan, ondorengo mugak onartu dira:

2024	2025	2026	2027
2,60%	3,20%	3,30%	3,40%

2025eko gastu konputagarriaren muga: 23.979.504,82€

Gastu konputagarria: 17.721.746,80€.

Hori dela eta, Zumaiako Udalaren aurrekontu espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek bete egiten du gastu arauaren 2025erako helburua. Hala ere, zenbateko hau, 2024ko aurrekontua likidatzen denean berriro kalkulatu beharko da, eta muga gaindituko balitz beharrezko doiketak egin beharko lirateke.

**3- ONDORIOAK**

Zumaiako udalaren 2025eko aurrekontuaren onarpen espedienteak betetzen ditu aurrekontu egonkortasuneko, eta gastu konputagarriko 2/2012 Lege organikoak ezarritakoa baita 2024ko uztailaren 16ko Ministro Kontseiluen akordioa: "2025-2027 ekitaldirako aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak, eta 2025erako Estatuaren aurrekontuaren gastu finantzarioaren muga zehazten dituen" ere.

Zumaian,

Kontu-hartzailea